



Instituzioek gizarte ekonomian gero eta interes handiagoa dutela erakutsi dute Toledoko Europar Konferentzian

Espainiako Gobernuak Gizarte Ekonomiako zuzenbide nagusiak antolatutako hitzorduak 20 herrialdetik etorritako partaide ugari izan zituen. Jardunaldien itxieran etorkizuneko Gizarte Ekonomiaren lege espainiarra aurkeztu zen.

[Informazio +](#)



Gizarte Ekonomiaren lege aurreproiektua berronetsi dute

Gizarte Ekonomiaren Sustapen Kontseiluak aho-batez berretsi zuen zirriborroa nahiz eta kontrako hainbat iritzi izan.

[Informazio +](#)



Eroskik 12 hipermerkatu saldu dizkio inbertsio fondo bati

Banaketa enpresak 150 milioi jaso ditu Episo-ri hainbat lokal saltzeagatik. Horrela, bere zorra murriztea lortu du, baina bere jarduerarekin jarraituko du orain arte bezala.

[Informazio +](#)



Kooperera merkatu ekologiko eta solidarioak 150 lanpostu sortu ditu martxan dagoen lehen urtean

Kooperera Sare Sozialak sustatutako ekimenak baztertze arriskuan dauden pertsonentzako 19 lanpostu sortu ditu eta, arduradunek aditzera eman dutenez, lantaldea handitzen joango da entitatearen inizatibak ugaritzen doazen heinean.

[Informazio +](#)



FUNDIBES eta Divina Pastora Fundazioek gizarte ekonomia sustatzeko ekintzak barneratuko dituen hitzarmena sinatu dute

Dokumentuak azken urteetan bi entitateen artean garatutako harremana instituzionalizatzen du. Jadanik hasi dira Mutualismoa eta Gizarte Ekonomiari buruzko Koadernoaren bilduman lan egiten.

[Informazio +](#)



‘Ekonomia bidezkoago baten aldeko astea’

EHU/UPVko Garapenerako Kooperazioaren bulegoak hainbat erakunderekin batera Bilbon antolatutako jardunaldiak egungo ekonomiaren zenbait alderdi eta aukera, ekonomia solidarioa besteren artean, aztertzen saiatu ziren.

[Informazio +](#)



GEZKIko hainbat kidek Berlinen egingo den CIRIECen Nazioarteko Kongresuan parte hartuko dute

CIRIECek bi urtez behin antolatzen dituen nazioarteko topaketak foro aproposa dira zentro honek jorratzen dituen jarduera arloan menpe dauden sektoreen artean informazioa eta ideiak elkartrukatzeko.

[Informazio +](#)



GEZKIko jardunaldiak oihartzun handia izan zuten komunikabideetan

Hedabide ugari eman zuten ‘Gizarte ekonomiak ezgaitasuna duten pertsonen laneratzearen arloan egiten duen ekarpena’ izenburudun jardunaldiaren berri eta bertan bildutako adituek eskainitako ondorioak zabaltu zituzten.

[Informazio +](#)



Fagor-ek EBITDA indizea %10 handitu du 2009an

Taldea sektoreko bosgarren fabrikatzaile bezala finkatu da Europan eta Espainiako zortzigarren inbertitzailea da berrikuntzan eta garapenean.